

KOLDO MITXELENA KULTURUNEA LIBURUTEGIKO ARAUAK

LIBURUTEGIA ERABILTZEKO ORDUAK ETA ESKAKIZUN NAGUSIAK

Astelehenetik ostiralera: 8:30 - 20:30
Larunbatetan: 8:30 - 14:00

Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia zerbitzu publiko bat da, 16 urtetik gorako pertsoneri zuzendua. Beraz, bertako fondoak, instalazioak eta eskaintzen diren prestazioak horrelako erabiltzaileentzat pentsatuak dira nagusiki. Adin horretatik beherakoek pertsona helduekin etorri behar dute.

LIBURUTEGIKO ZERBITZUAK

INFORMAZIOA

Liburutegiko informazio zerbitzua bi lekutan kokatzen da:

- 0. solairuko mostradorean, sarrerako ate parean
- 1. solairuko informazio gunean

Bietan, honako alderdi hauei buruzko informazioa eskura daiteke:

- Liburutegira sartzeko baldintzak, bazkide izateko betebeharrak, zerbitzuen kokapena eta erabilpena, araudia, etab.
- Koldo Mitxelena Kulturuneko ekintzen inguruko informazioa. Arreta pertsonalizatua dokumentazio bilaketan, gomendio bibliografikoak, etab.
- Beste gai batzuei buruzko informazioa: informazio turistikoa, beste erakundeetako zerbitzu eta ekitaldiak, etab.
- Kontsultak, kexak eta iradokizunak. Bide hauetatik egin daitezke:
 - Liburutegiko **Informazio Zerbitzuan**
 - Kultura Departamentuko **Idazkaritza Teknikoan**, KMKko 2.solairuan kokatua, 8:30etik 14:30era, erreklamazio-liburuaren bidez.
 - [Liburutegiko web-orrialdean](#)
 - [Gipuzkoako Foru Aldundiko web-orrialdean](#)
 - **E-postaz:** kmliburutegia@gipuzkoa.eus
- Desideratak (dokumentuak erosteko iradokizunak). Egiteko bideak:
 - [Liburutegiko web-orrialdea](#)
 - **E-posta:** kmliburutegia@gipuzkoa.eus

Eskaera guztiak aztertuko dira, baina liburutegiaren lerro estrategikoekin bat datozen dokumentuak soilik erosiko dira.

Liburutegiak **bisita gidatuak** antolatzen ditu. Parte hartzeko aldeztatik aurretik hitzordua eskatu behar da:

- [Liburutegiko web-orrialdearen bidez](#)
- Telefonoz: 943 11 27 60
- E-postaz: kminformazioa@gipuzkoa.eus
 - Taldeak 10 eta 15 pertsonen artekoak izango dira (kide gutxiago badira, kontsultatu egin behar da, taldeak osatzeko).
 - Parte hartzeko gutxienezko adina: 14 urte.
 - Bisitak astelehenetik ostiralera egingo dira.
 - Orduetgia egokituko da liburutegiaren jarduna ez oztopatzeko.

MAILEGUA

Liburutegiko txartela

Mailegu zerbitzua dohainik da.

Bazkide-txartela eskuratzeko betebeharrak:

- 16 urte beteta izatea
- Indarrean dagoen identifikatze-agiri orijinal hauetako bat pertsonalki ekartzea: Nortasun Agiria edota gidatzeko baimena. Atzerritarrek pasaportea edo Atzerritarren Identifikazio-Zenbakia (AIZ) aurkeztu behar dute. Beste dokumenturik ez da onartuko.
Mailegua egin ahal izateko eskatzaileak helbide egonkor bat egiaztatu beharko du. Bizileku finkorik ez duten bazkideek ezin izango dute dokumenturik eraman maileguan; Fonotekako eta Infotekako zerbitzuak bakarrik erabili ahal izango dituzte.

Bazkide-txartela pertsonala da eta ezin zaio beste pertsona bati utzi, hau da, txartelaren jabea maileguan hartutako materialaz eta bere erabileraz arduratuko da. Salbuespenezko egoera batzuetan (gaixotasuna, liburutegira etortzeko ezintasuna...) mailegua beste pertsona baten izenean egin ahal izango da, baina beti txartelaren jabearen baimen idatzia aurkeztuz.

Dokumentua indarrean egongo da liburutegiak bestelakorik esaten ez duen bitartean, eta honako zerbitzu hauek erabiltzeko balio du:

- Dokumentuak maileguan eramateko
- Fonotekan, dokumentuak entzun edo ikusteko
- Infotekan, liburutegiko ordenagailuak erabiltzeko (aldez aurretik hitzordua eskatuta).

Mailegua

Liburuak eta infotekako dokumentuak (CD-ROM eta DVD-ROMak) 0. solairuko mostradorean mailegutzen dira.

Entzunezkoak, hau da, musika eta pelikulak, 1. solairuan, Fonoteka zerbitzuan.

Mailegualdi bakoitzean erabiltzaileak gehienez 21 dokumentu eraman ahal izango ditu:

Dokumentu- mota	Gehienezko ale kopurua	Mailegu-aldia	Luzapena
Liburuak, CD-ROM, DVD-ROM	6	3 aste	3 aste
Ikus-entzunezkoak: musika, pelikulak	6 (3 CD/3 DVD)	3 aste	Ez
Turismo gidak	3	3 aste	Ez
Auto-ikaskuntza	6	3 aste	Ez

Mailegualdiaren luzapena: luzapena epearen barruan eskatu behar da, eta mailegu zerbitzuan bertan, telefonoz (943 112796) edo [Internet](#) bidez egin daiteke.

Erreserbak: Dokumentu mailegagarriak erreserbatu daitezke, mailegatuta egon nahiz apalean egon.

Pertsona batek dokumentu kopuru jakin bat erreserbatu dezake gehienez, dokumentu motaren arabera:

- 6 liburu
- 3 CD
- 3 DVD-Pelikulak
- 3 gida turistiko
- 6 auto-ikaskuntza

Erreserba liburutegiko katalogoaren bidez egingo da, eta eskatzaileari SMSren bidez jakinaraziko zaio. Eskatzaileak telefono mugikorrik ez duenean soilik iritsiko zaio jakinarazpena posta elektronikoz.

Abisua jaso ondoren, erreserbatutako dokumentua gehienez ere hiru egunez egongo da erreserben apalean, jaso izateko zain. Epe horretan jasotzen ez bada, bere tokira bueltatuko da edo hurrengo erreserbara pasako da.

Mailegua debekatuta duen erabiltzaileak ezin izango du erreserbarik egin. Erreserba eskatu ondoren, eskatzaileari zigorra jartzen bazaio maileguan zituen dokumentuak beranduegi itzultzeagatik, erreserbatutako dokumentua eskuragarri gelditzen denean ez zaio jakinaraziko eta bere aukera galduko du.

Zigorra amaitzen denean egin ahal izango du beste erreserba bat.

Dokumentuen itzulpena: dokumentuak dagokion mostradorean itzuli behar dira: liburuak, CD-ROM eta DVD-ROMak Mailegu zerbitzuan (0. solairuan), eta ikus-entzunezkoak, berriz, Fonotekan (1. solairuan).

Arau-hausteak/Zigorrak

Arau-haustea	Zigorra
Itzultzeko epea ez betetzea	Atzeratutako egun bakoitzeko bina egunez etengo zaio bazkidetza erabiltzaileari, epez kanpo itzulitako dokumentu kopuruaz biderkatuta. Maileguan hartutako dokumentuak itzultzeko epea ez betetzeak eragingo du edozein euskarriko dokumentuen mailegua edo erreserba egiteko debekua.
Dokumentuak puskatzea edo lapurtzen saiatzea	Arau-haustea aztertu ondoren zigorra adieraziko zaio bazkideari.
Dokumentuak galdu edo hondatzea	Bazkideak dokumentu horren beste ale bat ekarri beharko du. Halakorik eskuratzea ezinezkoa baldin bada (agortua dagoelako, adibidez), Liburutegiak antzeko liburu bat erostea proposatuko dio. Araua bete ezean, bazkide izateko eskubidea galduko du.
Beste arazo batzuk	Arau-haustea aztertuko da eta zigorra adieraziko zaio bazkideari.

Liburutegien arteko mailegua

Liburutegien arteko mailegu zerbitzuak edozein liburutegiren eskaerak erantzuten ditu, estatukoak zein atzerrikoak izan, eta alderantziz, KMK liburutegiko erabiltzaileentzat interesgarri diren dokumentuak eskatzen dizkie bestelako liburutegiei.

Baldintzak:

- **Dokumentua beste liburutegi bati eskatzen bazaio**

Maileguaren iraupena, eta jatorrizko dokumentua kontsultatzeko baldintzak liburutegi hornitzaileak dituenak izango dira.

Liburutegi hornitzaileak bere zerbitzua kobratzen badu, erabiltzaileari alde zuzenetik jakinaraziko zaio eta bera egingo da horren kargu.

- **Dokumentua beste liburutegi bati uzten bazaio**

Dokumentua 30 eguneko epean itzuli beharko da; epe luzaezina da.

Koldo Mitxelena liburutegiko dokumentu mailegaezinak beste liburutegi bati maileguz uzten bazaizkio liburutegian bertan kontsultatu beharko dira.

Zerbitzua doan da.

Harremanetan jartzeko:

- Telefonoa: 943 112781
- Faxe: 943 112765
- E-posta: lam-pib@gipuzkoa.eus
- [Web formularioa](#)

Aldi baterako erakusketetarako agirien mailegua

Eskaera:

Idatziz egin behar da eta honako datuak jaso behar ditu:

- Eskatzailea (izena, NA, telefonoa, e-posta)
- Entitate eskatzailea (izena eta Ifz)
- Erakusketaren titulua
- Lekua eta hasiera eta amaiera egunak
- Eskatutako obren zerrenda, honako datu hauekin: egilea, titulua eta signatura

Eskaera egiteko moduak:

- Posta elektronikoz: kmliburutegia@gipuzkoa.eus
- [Web formulario bidez](#)

Segurtasun baldintzak:

- Aseguruak: emandako estaldura “iltzez iltze” deitua izango da. Aseguruaren epea utzitako dokumentua ateratzen den egunetik bueltan etortzen den eguna arte, biak barne izan behar da. Asegurua izan dela egiaztatu arte dokumentua ez da aterako.
- Jasotzeko eta bueltatzeko momentuan dokumentua behar bezala enbalatu eta babestu egin beharko da. Enbalajeko kostuak entitate eskatzailearen kargu joango dira.
- Erakusketa aretoek agiriak zainduta edukitzeko beharrezko segurtasun neurriak izango dituzte.

Ingurumen baldintzak:

- Erakustaretoko tenperatura ez da 20° C baino gehiagokoa izango, eta, gehienez ere, balore horren gaineko +/-%10eko marjina onartuko da.
- Hezetasun erlatiboa % 40 eta % 50eko balio tartean egongo da.
- Erakusketako agirien argiztapena ez da 50 lux baino gehiagokoa izango eta beti zeharkakoa izango da. Erakutsiko diren obrek ez dute inoiz eguzkiaren argia zuzenean jasoko.
- Bitrinetan sartutako agiriak aldentuta egon beharko dute edozein beroturretatik eta ur kanalizazioetatik. Bitrina barruko argiztapena LED edo antzekoa izango da.

Manipulazio baldintzak:

- Agiriak behar bezala babestuta egon behar dute, bai Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegitik ateratzen diren unean, bai erakusketa bukatu ondoren liburutegira itzultzen direnean.
- Balore berezia duten obrak mailegatzan direnean, arte lanak eta dokumentazioa garraiatzen dituen enpresa espezializatu batek eta sektorean esperientzia duenak egin beharko du enbalajea eta garraioa.
- Zerbait urratu, hautsi edo zikintzen bada, ez da inolako konponketa edo berriztapenik egingo. Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia jakinaren gainean ipini beharko da.

Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegiak beretzat gordetzen du erakusketa aretoetako baldintza horiek ikuskatzeko eskubidea, baita hezetasun eta tenperatura grafikoak noiznahi eskatu eta, aipatutako baldintzak egokiak ez direla uste badu, agiriak erretiratzekoa ere.

Identifikazioa:

Ikusgai dauden agirien ondoan eta ondo ikusten den lekuan honako oharra jarri behar da:

- Jatorria: Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia – Gipuzkoako Foru Aldundia

HEMEROTEKA

Hemerotekan Liburutegiko egunkari eta aldizkariak biltzen eta eskaintzen dira.

Dokumentu mota

- Dokumentu eskuragarriak, erakustokietan daudenak: eguneko egunkariak, unean uneko aldizkariak. Aldiko dokumentu bakarra kontsultatu ahal izango da, eta kontsulta bukatutakoan dokumentua bere tokira itzuli beharko da.
- Eskuragarriak ez diren dokumentuak: aldizkari zaharren bildumak, espezializatutako argitalpen segidak, zenbait egunkari eta aldizkari. Mostradorean eskatu behar dira eta bazkide txartela edo identifikatze agiria utzi beharko da dokumentua itzuli arte. Liburutegia itxi baino ordu erdi lehenagora arte onartuko dira biltegiko funtsa kontsultatzeko eskaerak (astelehenetik ostiralera 20:00ak arte; larunbatetan 13:30era arte).

Hemerotekako dokumentuak ez dira mailegarriak.

Hemerotekan esparruan kokatu dauden ekipoak Infotekako erabilera arauak bete behar dute.

Dokumentuen erreprodukzio arauak

Bakarrik erreproduzitu ahalko dira 1915. urteaz geroztiko agiriak, betiere Jabetza Intelektualaren Legeak ez baditu babesten eta kontserbazio egoerak hala uzten badu. Koadernatutako egunkariak EZIN dira fotokopiatu.

Kopia digitala edo inprimatutakoa eskatzeko, [formularioa](#) bete beharko da eta liburutegiko arduradunek eskaera aztertuko dute.

Fotokopiatzeko baimena izanez gero, dokumentuak hemerotekan bertan fotokopiatuko dira.

Digitalizatutako eta mikrofilmatutako egunkari eta aldizkariak ezin dira paperean kontsultatu.

Ikusi [Erreprografia](#) saila.

FONOTEKA

Hemen liburutegiko ikus-entzunezkoak ikusi eta entzun daitezke eta baita maileguan eraman ere.

Fonoteka zerbitzua erabiltzeko, liburutegiko txartela izan behar da.

Fonotekan bertan kontsultatzea

Egunean ikustaldi edo entzunaldi bat bakarrik egin daiteke.

Gehienez ere bi erabiltzailek ikus dezakete DVD bera batera. Horretarako, elkarri baimena eskatu beharko diote eta Fonotekako mostradorean eskaera egin beharko dute. Halakoetan, ezingo du bigarren DVD bat eskatu.

16 urtetik beherakoek DVDak ikusi edo CDak entzun ahal izango dituzte bazkide batek lagunduta badaude, betiere entzuteko kaskoak erabiliz. Pertsona arduraduna adingabearekin egongo da une oro aretoan.

Erabiltzaile iragaileek entzunaldi eta ikustaldi zerbitzuak hiru egunetan erabiltzeko, nahikoa izango dute identifikatze agiria aurkeztea.

Badago areto bat taldean aritzeko. Hura erabiltzeko, aurrez eskatu beharko da zerbitzu honetako mostradorean. Taldeak arduradun bat behar du, eta liburutegiko materiala erabili beharko du.

Mailegua

Gehienez ere 6 ikus-entzunezko (3 CD eta 3 DVD) har daitezke maileguan. Mailegualdia 3 astekoa izango da eta ezin izango da epea luzatu. Mailegatzea eta itzultzea Fonotekan bertan egin behar dira.

IRAKURGELAK

Liburutegiko irakurgelak eta korridoretako irakurketa-postuak erabil daitezke irakurtzeko, erabiltzaileen materialarekin ikasteko, liburutegiko funts eskuragarriak kontsultatzeko, eta abar.

Ezin da beste batzuentzako lekurik gorde, eta lekua hartuta daukan erabiltzaileak ere ezingo du 30 minututik gora kanpoan egon, hala eginez gero beste norbaitek hartu baitezake leku hori.

Korridoreetan katalogoa kontsultatzeko dauden ordenagailu-postuak ezin dira beste zeregin batzuetarako okupatu .

Apaletan erakusgai jarritako agiriak kontsultatu ondoren, horretarako prestatutako orgetan utzi beharko dira. Orgak Liburutegiko zenbait lekutan egongo dira eskuragarri.

Debekatuta dago ozen hitz egitea eta soinu erreproduzigailuak gehiegizko bolumenean erabiltzea. Telefono mugikorrek isilean jarri beharko dira, eta korridoreetan bakarrik hitz egin ahal izango da telefonoz, gainerako erabiltzaileak gogaitu gabe.

INFOTEKA

Zerbitzu hau 0. solairuan dago eta 10 ordenagailu ditu.

Betebeharrak

- Liburutegiko txartela izatea
- Aldez aurretik hitzordua eskatzea:
 - Infotekan bertan
 - [Liburutegiko web-orrialdearen bidez](#)
 - Telefonoz: 943112793

Erabiltzaileak gehienez ere ordubetez erreserba dezake ordenagailua egunean. Erabiltzaile iragaileek zerbitzua hiru egunetan erabiltzeko nahikoa izango dute identifikatze agiria aurkeztea. Infotekako postua ezin zaio beste pertsona bati utzi.

Sareko azpiegitura erabiltzeko arauak

Liburutegiko sareko azpiegitura ez da erabili beharko ondorengoetarako:

- Legedia urra dezakeen informazioa transmititzeko edo edozein ekintza egiteko.
- Eduki pornografikoak edo indarkeria bultzatzen dutenak ikusteko edo transmititzeko.
- Jabetza intelektualeko eskubideak urratzen dituen informazio oro zabaltzeko.
- Baimendu gabeko sarbide bat lortzeko edo lortzen saiatzeko, hala nola, edozein sistema, sare edo kontuko baimen edo segurtasun gailua saihesten saiatzeko.
- Erabiltzaile, sistema edo sare baten zerbitzua oztopatzeko edo oztopatzen saiatzeko, programa bat, interpreterik gabeko programa bat, komando bat edo beste bitartekoren bat erabiliz.
- Edozein motatako birusa edo kode kaltegarriren bat sartzeko edo hedatzeko, berariaz nahiz Liburutegiak jarritako babes sistemak inhibitzeagatik.
- Aplikazioen bat erabiltzeko, nahiz eta jakin horren erabilerak sarearen disfuntzioa eragin dezakeela.
- Sareko azpiegitura erabiltzen bukatutakoan, erabiltzaileak bere kontua itxi beharko du saioaren amaieran. Horrela egin ezean, beste edonork erabili ahal izango luke aurreko erabiltzailearen identitatearekin, eta hura izango litzateke edozein jardueraren erantzule.

Liburutegia ez da izango interneteko postuetatik erabiltzaileek eskuratu edo bidal dezaketen informazioaren erantzule, inola ere.

Infotekako ekipoen softwarea erabiltzeko arauak

Erabiltzaileek errespetatu behar dituzte ekipotan erabiltzen duten softwarearen baimen eta copyright baldintzak. Horrenbestez:

- Erabiltzen den softwarea copyrighten bidez babestuta badago, ezin da kopiarik egin.
- Liburutegiak erabiltzaileen esku jartzen dituen bitartekoak ezingo dira erabili babestutako softwarea kopiatzeko eta dituen babesak apurtzeko.

- Ekipoetan ezingo da softwarerik instalatu.
- Erabiltzaileak izango dira softwareaz egiten duten erabileraren erantzuleak, eta erabilerak eragiten dituen betebeharrak eta beharkizunak bete beharko dituzte.
- Egile eskubideak dituen eta Liburutegiko ekiporen batetik edo saretik lortu den eduki elektronikoro indarrean dagoen legediaren arabera erabili behar da.

Infotekako ekipoen hardwarea erabiltzeko arauak

Liburutegiko instalazioak errespetatu behar dira. Horrenbestez:

- Debekatuta dago ordenagailuak eta horien konexio elektrikoak eta datu konexioak manipulatzeko.
- Ordenagailu eramangarriak ezingo dira Liburutegiko sarera konektatu sareko kablearen bidez.
- Liburutegiak erabiltzaileen eskura jarritako terminaletan datu bilketarako USB gailuak bakarrik konektatu daitezke.

FONDO GORDEA

Zerbitzu hau ikerketarako eta zuzenean eskuragarri ez dauden obren kontsultarako da. Bertan, lana bakarka eta isilean egingo da, ikasteko edota ikerketarako baldintza egokiak bermatzen saiatuz.

Arau orokorrak:

- Liburutegiko langileei eskatuko zaizkie dokumentuak.
- Dokumentuak ezingo dira inola ere Fondo Gordeen Gelatik atera.
- Dokumentuak kontsultatu bitartean NA zerbitzuan utzi behar da.
- Liburu eta liburuxkak, aldiko, ez dira hiru baino gehiago emango. Kontsulta eskaera berri bat egin aurretik, lehen hartutako dokumentuak itzuli beharko dira.
- Orri solteak dituzten karpetak, gutun-azalak, kaxak eta paper-sortak banan bana emango dira, biltzen dituzten agiriak hurrenkera okerrean jarri ez daitezten. Orriak zenbakituta egongo dira, eta erabiltzaileak ez du agiriaren hurrenkera aldatuko.
- Katalogatuta ez dauden funtsak kontsultatzeko –batez ere banakako arreta eskatzen badute- [formulario](#) imprimaki bat bete beharko da eta, Liburutegiko arduradunen baimena izanez gero, aldeztu aurretik hitzordua eskatu beharko da kontsulta egin ahal izateko.

Dokumentuak erabiltzeko arauak:

- Dokumentu bat kontsultatu aurretik, eskuak garbi eta lehor eduki beharko dira. Ez dira hatzak busti behar orriak pasatzeko.
- Materialak mahai gainean kontsultatu behar dira beti, posizio egokian.
- Ezingo da dokumentuen gainean jarri oharrak hartzeko, eta dokumentuak ez dira bata bestearen gainean jarriko.
- Orriak kontu handiz pasa behar dira, hautsi edo tolestu ez daitezten. Liburuetako mapak, grabatuak eta orri tolestuak arreta handiz erabili behar dira. Erabiltzaileak arazorik izango balu orriak zabaldu eta tolesteko, Liburutegiko langileei galdetuko die.
- Dokumenturen bat egoera txarrean edo osatu gabe dagoela, edota ireki gabeko orriak dituela antzematen bada, Liburutegiko langileei jakinaraziko zaie.
- Debeztatuta dago materialak eskaneatzea edo horien argazkia ateratzea, Liburutegiko langileei baimena eskatu gabe. Kopiaren bat behar izanez gero, [erreprografiako araudia](#) kontsultatu beharko da.
- Liburukia zabalik edukitzeko ez dira behartu behar azalak.
- Irakurketa puntua markatzeko orri-markatzailea erabiliko da, inoiz ez eranskailuak edo “post-it”ak, boligrafoak edo klipak. Kontsulta bukatutakoan orri-markatzailea kenduko da.
- Grabatuak, marrazkiak eta ilustrazioak hondatu egin daitezke eskuekin ukituz gero. Ertzetik heldu behar zaie.
- Dokumentu batzuk kontsultatzeko, eskularruak erabili behar dira. Hor bertan emango dira.

Dokumentuen eskaera

Dokumentu batzuk Liburutegitik kanpoko biltegietan daude. Kotsultatzeko, aurrez eskatu behar dira. Dokumentu horiek bi aldiz ekarriko dira egunean:

- Goizeko 8:00 eta 13:45 bitartean eskatzen direnak: arratsaldean eskainiko dira.
- Arratsaldeko 13:45 eta goizeko 8:00ak bitartean eskatutakoak: eskaera egindako hurrengo goizean kontsultagarri egongo dira.
- Ostiraleko 19:45ak baino lehen eskatzen direnak: larunbatean emango dira.

Eskaera horiek egin daitezke:

- Fondo Gordeen Gelan bertan
- Telefonoz: 943 11 2783
- E-postaz: kmfondogordea@gipuzkoa.eus

Dokumentuen erreproduzio arauak

Bakarrik erreproduzitu ahalko dira 1915. urteaz geroztiko agiriak, betiere Jabetza Intelektualaren Legeak ez baditu babesten eta kontserbazio egoerak hala uzten badu.

Kopia digitala edo inprimatutakoa eskatzeko, [formularioa](#) bete beharko da eta liburutegiko arduradunek aztertuko dute.

Nolanahi ere, agiriak ezingo dira zuzenean erreproduzitu, aldez aurretik Liburutegiak emandako baimena behar baita.

Ikusi [erreprografia](#) saila.

KOMIKIGUNEA

Komikigunea komikiaren mundua kontsultatzeko eta ikertzeko gune bat da, Liburutegiak sortua eta Donostiako Errege-Erregina Katolikoek kalean kokatua. Luis Gascaren bilduma hartzen du abiapuntutzat, eta barruan biltzen ditu komikiak, *pulp* aldizkariak, fanzineak, jatorrizko obra grafikoa, filmak, komikiari buruzko ikerketak eta abar.

Komikiguneko dokumentazioa ezin da maileguan eraman.

Komikiguneko funtsa kontsultatzeko, aldeztu aurretik ordua eskatu behar da hauetako bide batetik:

- 943249690 telefonoan
- komikigunea@gipuzkoa.eus helbidean.

Helbidea: Errege-Erregina Katolikoek kalea 16, 20006 Donostia

Aldeztu aurretik hitzordua eskatzeko ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30-19:30.

ERREPROGRAFIA

Baldintza orokorrak

- Bakarrik erreproduzitu ahalko dira 1915. urteaz geroztiko agiriak, betiere Jabetza Intelektualaren Legeak ez baditu babesten eta kontserbazio egoerak hala uzten badu.
- Liburutegiak hitzarmen bat sinatu du CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos), Jabetza Intelektualaren Legeak babestutako obrak fotokopien bidez erreproduzitu ahal izateko. Lizentziak aukera ematen du argitalpenaren %20, gehienez, erreproduzitzeko.
- Fondo Gordeen Gelako dokumentuak fotokopiatzeko aurrez baimena eskatu beharko da beti.
- Dokumentazioa babesteko, kuadernotutako egunkariak EZIN dira fotokopiatu

Erreprodukzio-mota	Non
Fotokopia	Erreprografia Zerbitzuan (0. solairuan) edota korridoretako autozerbitzu-fotokopiagailuetan
Mikrofilmeko inprimaketa	Hemerotekan eta Fondo Gordeen Gelan
Erabiltzaileen dokumentu digitalaren inprimaketa	Erreprografia Zerbitzuan
Erabiltzaileek bere baliabide propioekin egindako argazkia edo eskaneatzea	
Erabiltzaileen dokumentuen eskaneatzea	Erreprografia Zerbitzuan
Liburutegiko dokumentuen digitalizazioa	Eskaera idatzia egin ahal izango da Liburutegiko web-orrialdearen bidez edota edozein zerbitzutan

Erreprodukzioak erabiltzeko, kontuan hartzekoak:

- **Obra ez bada eskumen publikokoa**, hau da, ustiapen eskubideak indarrean baldin baditu, beharrezkoa izango da baimena idatziz eskatzea obraren ustiapen eskubideen titularrei. Obraren ustiapen eskubideek egilearen bizitza guztian irauten dute eta, oro har, egilea hiltzen denetik 70 urte pasa arte. Jabetza Intelektualaren Legearen arabera, egile eskubideen titularrek ezingo dute eragozpenik ipini ondoren adierazten diren erreprodukzio-eskariak egiten direnean:
 - Irabazi asmorik gabeko liburutegi batek egiten badu, ikerketa edo kontserbaziorako eskusiboki, edo
 - Pertsona fisiko batek egiten badu, kopia pribatu gisa (31.2 artikulua).
- **Aldiz, obra eskumen publikokoa bada***, hau da, obraren ustiapen eskubideak iraungita badaude, babeserako epea igaro delako, edonork erabili ahal izango du, betiere obraren egiletza eta osotasuna errespetatuz.

Kasu guztietan eskaera [formulario](#) hau bete eta kopien jatorria ondoren adierazten den bezala aipatu beharko da:

- Jatorria: Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia-Gipuzkoako Foru Aldundia.

Eskumen publikoko obrak*:

- Edozein obra, egilea hiltzen denetik 80 urte pasatakoan (70 urte 1987ko abenduaren 7a baino geroago hil diren egileen kasuan).
- Gerora argitaratu diren eskumen publikoko egileen obrak, horien argitalpen eta ekoizpen eskubideak ere iraungita geratu direnean.
- Erabilera publikoa onartzen duten lizentziapean argitaratutako lanak.

Tarifak

Fotocopia/Inprimatzea	DIN-A4	DIN-A3
Txuri-beltzean	0,10 € 0,07 € Erreprografia Zerbitzuko txartelarekin	0,20 € 0,14 € Erreprografia Zerbitzuko txartelarekin
Koloretan	1,00 €	2,00 €

Erabiltzaileen dokumentazioaren Eskaneatzea		
	0,10 €	0,20 €

Euskarria	
CD/DVD	1,50 €

Prezio horiek igo daitezke Kontsumorako Prezioen Indizearen arabera.